



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

**POLITIKA OROKORRARI BURUZKO
URTEKO ADIERAZPENA
2022**

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA 2022-10-25

1.- SARRERA: LEGEALDIAREN BALANTZEA

Honakoa dugu legegintzaldi honetako azken politika orokorrari buruzko osoko bilkura eta eztabaida. Une egokia azken lau urteetan bizi izan dugunaren errepasoa egiteko, baita ere hain aldagarria suertatzen ari den mundu honetan gure Hiriaren inguruko gogoeta egiteko.

Ez da legealdi xamurra izan. Gogoan dut, 2019ko urriaren azken egunean ospatu genuen udalbatzarrean egindako politika orokorrari buruzko adierazpena. Bertan marrazten nituen Gobernu honen egitasmu nagusienak, adostu berria zen gobernu programan zehazten zirenak. Horiek begiratzerakoan, egunerokotasun osoa dutela ikus dezakegu. Bertan markatzen ziren hainbat helburu bete dira legealdi honetan, edo gutxienez pauso handiak eman dira betetze aldera.

Zalantzarik gabe, 2019ko Urri hartan ez genuen espero gero etorri zena etorriko zenik. 2020ko martxotik aurrera gertatutakoak legealdia erabat baldintzatu du. Udal kudeaketari dagokionean jakina, eta baita ere lehentasun edo hiriaren arazoei dagokionean.

Legealdi hau hein handi batean COVID 19aren legealdia izan da, eta orain, azken txanpari ekiten diogunean, munduak bizi duen egoera zaila ikusirik, tartean Europak bizi duen gerra, berriro ere ziurgabetasun egoera batetan murgilduta gaude.

Egoera honek kezka eragiten du gurean, baita egonezina ere. Coronavirusak eragindako egoera zaila gainditzeko ari ginela ikusten genuenean, atzera berriz zalantzez betetako garai bati aurre egiten diogulako.

Ni ez nator gaurkoan errealitate hori alde batera uzteko asmoarekin. Uste dut datorrenari aurre egiteko prestatuta egotea dagokigula. Arazoei aurre egiteko modurik eraginkorrena arazo horiei aurrez aurre begiratzea da, ez ukatzea. Baina hori esanda, uste dut ezin garela ezkortasunean erori.

Pedro Miguel Etxeniketik orain dela egun gutxi komunikabide bati emandako elkarrizketa batetan zioena ekarri nahiko nuke hona.

Kazetariak, bizi dugun egoerak sortzen duen ezkortasunari buruz galdetzen dionean honakoa erantzuten du:

“No soy partidario de caer en un pesimismo antropológico. Yo creo que de la pandemia hemos salido peor [...], pero también hemos aprendido mucho y tenemos los instrumentos para salir adelante. Cualquier tiempo pasado no fue mejor [...]. Tenemos los medios. ¿Sabremos hacerlo?”

Nik ere gure Hiririari begiratzen diodanean halaxe pentsatzen dut. Baditugula baliabideak eta indarguneak datorrena datorrela aurrera egiteko.

Coronavirusaren krisiari aurre egin diogun bezala, aurrean ditugun erronkei ere aurre egiteko gaitasuna ba dago Hiri honetan.

Nik Donostian sinisten dut.

Mundua azkar aldatzen den honetan inoiz baino garrantzitsuagoa da oinarri sendoak izatea. Donostiak ba ditu oinarri sendo horiek, eta gainera, 2030 urteari begira egindako plan estrategikoaren eguneraketan argi jasotzen dira horiek.

Partehartze prozesu zabal bat burutu ondoren, 2030 urterako plan estrategikoak bost zutabe nagusi finkatzen ditu, eta horietan oinarritzen dira helburu estrategikoak. Hurrengo urteetan horiek jorratzea eta garatzea dagokio, jakinda, uneko zailtasunak gainditzea egokituko zaigula, baina garrantzitsuena norabidea ondo finkatuta izatea da, eta mantentzea, nahiz eta batzuetan egoerak eraginda abiadura aldatu daitekeen.

COVID 19aren legealdia izendatu dudan honek horren adibideak eman dizkigu. Agian gauzak erraz ahazten ditugu, batez ere atseginak ez direnean, baina gustatuko litzaidake labur bada behintzat bizi izan dugunaren errebaso laburra egitea.

De la noche a la mañana nos encontramos con una situación que pocos eran capaces de imaginar. En marzo de 2020 nos encontramos con un repentino cambio de guión que nos obligó a gestionar algo desconocido. Desconocido desde el punto de vista social y también desde el punto de vista económico.

Eso obligó a reorientar toda la actividad municipal a dar respuesta a esa nueva situación. En los plenos sobre política general del año 2020 y del año 2021 nos dedicamos principalmente a esta cuestión. No voy a reproducir lo dicho en aquellos plenos, pero si me gustaría mencionar algunas cuestiones:

El comercio, la hostelería y la cultura han sido los sectores mas impactados por la situación vivida. Ello ha exigido realizar un especial esfuerzo para tratar de ayudar a dichos sectores, bien sea a través de ayudas (PREK 1 + PREK 2 = mas de 11.000.000 de euros) bien sea como en el caso del sector cultural programando a pesar de las enormes dificultades.

La situación vivida, especialmente en el año 2020, obligó a incrementar el presupuesto de Acción Social del Ayuntamiento en millón y medio de euros.

Y todo esto sucedía mientras se llegó a estimar que el impacto del coronavirus sobre las cuentas del Ayuntamiento podría llegar a ser de hasta 70 millones de euros. Esa situación provocó que por precaución, algunos proyectos se pararan o se retrasara la decisión sobre su ejecución. Sin duda, todo ello ha tenido un impacto sobre las previsiones que todos podíamos hacer a inicios de la legislatura.

Baina COVIDaren legealdi honek, Udalaren lanean edo egoera ekonomikoan izandako eraginaz haratago, gure gizartean izan du eraginik handiena. Eta oraindik bizi izandakoaren ondorioak ez dira gurean amaitu. Batetik irteten ari garenean beste bat etorri zaigu

gainera, eta berriro ere laino ilunak ikusten ditugu gure begien aurrean.

Ni ez naiz ausartzen benetan zer datorkigun esatera. Ez dut uste inork dakienik ere. Ematen du energiarekin, inflazioarekin arazoak izango ditugula.

Baina gertatutakoak gertatu ondoren, entrenatuta bagaude, sarean egiten badugu lan eta komunitate izaten jarraitzen badugu seguru nago jakingo dugula aurrean dugun garai horri ere aurre egiten.

Tal como dice Gutiérrez Rubí: “Preparémonos para vivir con incertidumbre serena y resiliencia cooperativa”.

Vivimos en una era de grandes incertidumbres para la cual tenemos que estar preparados, entrenados trabajando en red entre todos los agentes de la comunidad que formamos los y las donostiarras.

2.- DONOSTIAREN ERRADIOGRAFIA

Urtero urtero gustatzen zait gure Hiriaren erradiografia orokorra egitea, non gauden erakusten baitigu, eta beraz etorkizunari aurre egiteko nondik abiatzen garen adierazten digu.

Hiriaren erradiografia egiterakoan, ba dira Donostian azken urteotan ikusten ditugun joerak, eta horiek ez dira urte batetik bestera nabarmen aldatu, baina 10 urteko perspektiba hartzen badugu, gure Hirian gertatzen ari den aldaketa nabarmena dela deritzot.

Ez da biztanle kopuruan aldaketa handirik atzematen, bai ordea biztanlegoaren konposizioan. Zahartze prozesuak aurrera egiten jarraitzen du, gure ingurune osoan bezala. Ez da ordea hain azkarra izaten ari eta ez gara biztanleria galtzen ari erreleboa ematen ari delako, hein handi batean atzerritik datozen donostiar berriei esker ematen ari da errelebo hori.

Orain aste bete egin ziren publiko Gizarte Segurantzak irailarte Euskadin izan dituen afiliatu berrien kopurua. Eta titularra oso

adierazgarria dela deritzot: Azken urtean Gizarte Segurantzak Euskadin izan dituen afiliatu berrien erdia jatorriz atzerritarra da.

Uste dut datua oso esanguratsua dela, eta Euskadikoa izanik ere, Donostiara ekarri dezakegu zalantzarik gabe. Azken urteetan ematen ari den mugimenduaren isla garbia da. 2021. urteko datuei erreparatzen badiegu, Donostian bizi den atzerritar biztanleria %8,7 izatera heldu da. Hiriak inoiz ezagutu duen portzentaiarik altuena da hori, igotzen jarraitzeko joera duena. Kontutan izan behar da portzentaia horrek ez duela adierazten atzerrian jaiotako gaur egungo donostiarren kopurua, oraindik nazionalitate atzerritarra dutenen kopurua baizik. Ondorioz, atzerrian jaio eta orain donostiar direnak askozaz gehiago dira, %12,8 hain zuzen ere.

Gure gizartearen konposizioa aldatzen ari da beraz, bi norabidetan: Zahartzen eta anitzagoa egiten. Errealitate berri hori barneratzen jakin beharra daukagu, baita gure jarduera errealitate horretara moldatzen ere.

Datuekin gehiegi ez luzatzearren, hainbat atal aipatu nahiko nituzke Hiriari buruzko gogoeta egiterakoan:

Ikasketa maila: Datuei erreparatzen badiegu, azken hamar urte hauetan etengabe egin dute goraka Unibertsitate ikasketek, bigarren mailako ikasketek eta ikasketa profesionalek gure Hirian. Adibide gisa aipatzearren, 2010. urtean lehen mailako ikasketak edo inongo ikasketarik ez zuen donostiar kopurua biztanleriaren %52a zen. Gaur egun, %40a. Horrek esan nahi du, gaur egun Ikasketa Unibertsitarioak, bigarren mailako ikasketak edo ikasketa profesionalak dituzten donostiarrak %60a direla. Inoiz izan dugun biztanleria formatuena dauka gaur Donostiak.

Errenta maila: Egunkarietan irakurriko zenuten nik irakurri dudan bezala INE-ak argitaratutako datuen arabera, Donostia dela biztanleko errenta altuena duen Lurralde Hiriburua eta Gipuzkoa errenta altuena duen Lurraldea.

Langabezi tasa: Esku artean daukagun azken datuaren arabera, Lanbidek eskaintzen duena alegia, irailean Donostiako langabezia tasa 7,8 puntukoa da. 2019an Osoko bilkura hau ospatu genuenean

%8,2koa zen. Gaur Donostiak, Lurraldeak eta Erkidegoak baino langabezia tasa baxuagoa dauka. Horiek dira datuak.

Pero no todos los datos son buenos, y precisamente los que no son buenos o suficientemente buenos son los que han de guiar nuestra acción política presente y futura en aras a mejorarlos. Poner de manifiesto las fortalezas que como Ciudad tenemos no es un ejercicio de autocomplacencia, como algunos a veces nos reprochan. Son datos que nos indican que tenemos una buena base para afrontar los principales retos que tenemos entre manos.

Todos somos conscientes de que los datos hay que leerlos con detalle y detenimiento.

Por ejemplo, los niveles de renta no se distribuyen por igual en toda la Ciudad, y a pesar de que el propio estudio del INE señala que Donostia es la Capital de Territorio de todo el Estado que mejor indicador presenta al respecto, todos somos conscientes de que tanto la situación vivida en los dos últimos años, como la actual coyuntura son propicias a aumentar las desigualdades. **Si queremos mantener un alto grado de cohesión social en nuestra Ciudad, deberemos seguir volcando nuestros esfuerzos en combatir las desigualdades.**

También cuando hablamos de los datos del empleo, todos sabemos que éstos encierran desigualdades. Los datos relativos a la calidad del empleo, la temporalidad, la brecha de género también son datos. Datos que nos indican dónde debemos seguir centrando nuestros esfuerzos.

Y también es un dato objetivo que en lo que a vivienda se refiere nuestra Ciudad es la que tiene el metro cuadrado más caro del Estado, siendo éste un gran problema para quienes quieren desarrollar su proyecto de vida en Donostia, especialmente los jóvenes.

Finalmente, mañana y pasado se realizará el recuento de la personas que viven en calle en Donostia y en otros municipios. Ese también será otro dato que requerirá análisis, reflexión y respuestas.

Inozoa litzateke arazoak ditugula ukatzea. Ez da horrela. Baina inozoa da ere arazoak bakarrik daudela ikusarazi nahi izatea, horrek ez baitu gure Hiriaren argazki osoa eskaintzen. Guztiak hartu behar ditugu kontutan, dauzkagun indarguneak zaintzeko eta dauzkagun arazoei aurre egiteko.

Goazen bada Donostiak begibistan dituen erronka nagusiei ekitea.

3.- ETORKIZUNeko ERRONKA NAGUSIAK

Hiriaren datuak azaltzerakoan aurreratu ditut zeintzuk diren nire ustez, Hiriaren erronka nagusienak. Legealdi hasieran finkatzen genituen bide beretik doaz. Egon badaude orain lehen baino garrantzitsuagoak diren gaiak, edo orain hainbeste garrantzi ez dutenak ere, baina gure Hiriaren etorkizuna irudikatzerakoan, erronkak mantendu egiten dira, eta gure ardura da horiei guztion artean erantzun egokiak bilatzen saiatzea.

- Hiri inklusiboa eraikitzea (gizarte-kohesioa eta lurralde oreka):

"Zaintzen duen komunitatea" "Una comunidad que cuida" horixe da aspaldian gure hirian existitzen den Donostia Lagunkoia estrategiaren lau ardatzetako baten izena, ez da kasualitatea horrela deitzea. Euskaraz esaten dugu "izenak izana dakarrela" eta kasu honetan halaxe da, izan ere, izen horretan guretzat giltzarriak diren bi kontzeptu daude: zaintza eta komunitatea. Ezin ditugu bereiztu txanpon baten bi alde direlako eta horrela planteatzen ari gara gauzatzen ari garen ia jarduera guztietan.

Udalak hiritarroi eskaintzen dizkien zerbitzu gehienek (guztiak ez esateagatik) azken helburua hiria egiten duten hiritarrak zaintzea da. Eta hori egiaztatzeke aski da Gobernu Programa aztertzea, Programak 10 ardatz ditu eta hamarren jomuga horixe da: donostiarrei duten bizi-proiektuak aurrera ateratzen laguntzea, haien beharrei erantzunez eta haien nahiak aintzakotzat hartuz. Hori hala izanagatik, baditugu pertsonen zainketa muinean ditugun zerbitzu eta programak eta 2022 urtean horiek hobetzen jarraitu dugu, pertsonen harreman

sarea indartu edota sortu ahal izateko. Zahartzen ari den gure Hiri honetan hona hemen zenbait adibide:

Etxez Etxeko Laguntza: Gizarte Zerbitzuentzat mugarrria izan zen eta den zerbitzu honek aukera ematen die autonomoak izanda, egoera zaugarrian dauden pertsonen haien etxeetan ahalik eta denbora gehien bizitzeko; bada, xede hori buruan, proiektu berritzaile bat jarri dugu abian: Epe luzeko zaintzak izenekoa. Berrikuntza sozialeko programa honen bidez, Donostiako zaintzen ekosistema aberastu nahi dugu, eta eskarmentu handiko zerbitzu baten eskutik egin nahi dugu. Langileak prestatuz eta sistemen arteko koordinazioa hobetzeko estrategiak diseinatuz.

Horretaz gain, urriaren 11n onartu genituen Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren plegu berriak. Plegu horiek zerbitzuaren langileen aldarrikapenak izan ditugu kontuan eta hala, zerbitzuaren hurrengo urteko aurrekontua 12.217.735,30 eurokoa izango da, aurtengoa baino 2.704.939,97 euro gehiago, alegia. Eta Udalak zerbitzu honetan aurreikusia duen inbertsioa igotzen jarraituko du hurrengo urteetan, denera 58.802.558 eurokoa izango da.

Goizaldiak: Adineko pertsonen balorazioa, lagun egite soziala eta eskuhartze sozioedukatibo eta soziala eskaintzen dien zerbitzu honek eta etxeetan isolaturik geldituko liratekeen pertsonen beste pertsona batzuekin elkarreragina edukitzeko aukera ematen diena 4 zentroetatik 8 zentroetara pasa dugu eta, gainera, berrikuntza sozialaren aldeko apustua egin dugu, teknologia erabiliz arreta pertsonalizatuagoa izan dadin.

Zahar Etxeak: Arazoak arazo, bi zahar etxe berri ireki dira legealdian zehar: JATORRA eta INTXAURRALDE. Aurtengo apirilaren amaieran inauguratu zen Intxaurrondoko Zahar Etxe Berria, konbentzitura baikaude zerbitzu hauek guztiz beharrezkoak direla adineko pertsonak antolatzeke eta haien partehartzea bultzatzeko, horrela zahartze osasuntsuaren alde eginez.

Hirian Zahar Etxe egokiak eta haien erabiltzaileei zerbitzu gehiago eta hobeak edukitzeko ahaleginez gain, ezin dut ahaztu zentro hauen arteko zein zentroen eta erabiltzaileen arteko komunikazioa hobetzeko egiten ari diren ahalegina. Adineko Pertsonen Elkarteetako Juntek,

Udala lagun dutela, bitarteko ezberdinak ari dira erabiltzen auzoetan dauden adineko pertsona zaurgarriengana iristeko eta elkarren berri izateko web orri berria jarri dute martxan ekitaldi honetan ere.

Sarean lan egiteak bermatzen baitu ditugun bitartekoekin arreta hobe eskaintzea eta horretan dihardugu duela 5 urte, auzo ezberdinetan sortutako ERLAUNTZETAN. Egitasmo honen bidez, auzo ezberdinetako agente komunitario ezberdinek konfidantzazko harremanak sortu eta lantzen dituzte denon artean pertsona gehiagorengana iristeko, pertsonak hobeto zaintzeko, alegia.

Eta adineko pertsonak ez ezik, egoera ekonomiko zaurgarrienean dauden pertsonak ere zaintzea da beste heburu bat. Gure konpromisuari eutsiz, AES (Gizarte Larrialdietarako Dirulaguntzak) jasotzeko irizpideak betetzen dituzten familia edota pertsona guztiek eskuratzen dituzte dirulaguntza hauek. Horrela, eta urtero bezala, orain arteko datuak emango ditut, irailararte 2.497.091,46 euro erabili dira AESen bidez eskatu eta irizpideak betetzen dituzten 2.854 familia edo norbanakoei zuzenduta (iaz baino 56 gutxiago). Eta AES ak jasotzeko irizpideak bete ez, baina beharrean dauden 596 familiari edo norbanakori ere lagundu zaie 404.366, 58 euro erabiliz. Hemendik aurrera zer gertatuko den ikusteko dago, baina beharrei erantzuten jarraitzea da Udalaren konpromisoa, beti izan den bezala.

Zaurgarritasun ekonomiko larrienean dauden pertsonen ere lagundu egiten zaie. Askotan adierazi dugunez, Donostia da Legeak ezartzen dituen gizarteratzeko udal plaza guztiak dituen Gipuzkoako Udallerri bakarra. Bada, 2022 urtean 16 plaza gehiago jarri dira martxan eta horietaz gain, kalean bizi eta inklusio prozesuan dauden 48 pertsonen lagundu zaie kalea utzi ahal izateko ostatalekua ordaindu dezaten.

Eta jakitun gara zenbait pertsonak oinarrizko beharrak asetzeko zerbitzuak ere behar dituztela, eta horrela 2021eko udan abian jarri zen OTORDUAK egitasmoa. Horri esker 157 pertsonen izan dute bazkaltzeko eta afaltzeko aukera. Esklusio larrian dauden pertsonen arretaren hobekuntzak beste adibide bat du gure hirian, izan ere HESTIA zerbitzuak behar duen espazioa izan dezan lanek aurrera jarraitzen dute.

Eta guztiz garrantzitsuak diren beste bi alorretan ere zerbitzuak hobetu dira 2022an, batetik, biolentzia matxistaren biktima diren emakumeak hobeto zaintzeko, haientzako pisu tutelatueta hezitzaile zerbitzua jarri da martxan. Eta bestetik, Donostian babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoei laguntzeko programek kasu gehiago detektatzeko eta horiek hobeto artatzeko aurrera pauso garrantzitsua eman dute. Une honetan hiriko ia eskola guztietan ditugu Eskuhartze Goiztiarra programa (aurreko legealdian anbulategi guztietan jarri zen martxan) eta arretari dagokionez, programa ezberdinak jarri dira martxan, nerabetasun arazotsua duten edo gurasoen banatze gatazkatsuetan inplikaturik dauden adin txikiko zein haien gurasoei laguntzeko.

Eta beste behin ere kapazak izan gara ezusteko egoera bati azkar erantzuteko. Ukrainako inbasioaren ondorioz guregana iritsi diren pertsoneri lagundu ahal izateko lantalde bat jarri genuen martxan berehala. Lantalde horrek beharrak aztertu eta era koordinatuan aritu da gure hirian erroldatu diren 400 ukrainiarren beharrak asetzeko eta guretik pasa direnei ere ahalik eta egokien artatzeko.

Gizarte kohesioa lantzerakoan ba da kontutan izan beharreko beste elementu garrantzitsu bat: Lurralde oreka deritzoguna. Horrek esan nahi du Udalak duen inbertsio ahalmena Hiriaren zona ezberdinek eskaintzen duten bizitza kalitatea berdintzen saiatzera zuzentzeko esfortzua egin behar dela. Azken urteotako dinamika izan da, eta baita azken ekitaldi honetakoa ere, behar handiena zuten zonaldeetan egitea inbertsiorik handienak.

Urumeako ibarra da eraldaketa handiena ezagutzen ari den gunea, inbertsio esfortzu handia eskatu duena azken urteotan. Azken emaitzak, Loiolako Igarobidea eta Ibaiaren zabaltze lanen bigarren fasearen amaiera dira. Esfortzu horiek ez dira amaitu, eta hurrengo urteetan Udalak dituen ahalmenak bertara zuzentzen jarraitu beharko dugu, Txomin enean eta Martutenen bereziki. Txomin Enearen kasuan, behin kartzela itxita garapena osatzeko eta falta diren zerbitzuak eskaintzeko (anbulategia da gure lehen helburua) eta Martuteneren kasuan falta diren guneak birgaitzeko, garapen berriak aurrera eramateko eta kokapen egokiago batetan Tren geltoki berria

errealitate bihurtzeko. Antzitak, Loiolako Koartelak eta laister urbanizazio lanak nola hasten diren ikusiko duten Lorategi Hiriko guneeek osatuko dute etorkizuneko garapen nagusienetako bat.

El crecimiento natural de la ciudad sigue durante los últimos años el eje del Urumea, y así lo va a seguir haciendo durante los próximos ejercicios. Por ello, será necesario realizar inversiones y articular equipamientos que acompañen este nuevo eje funcional de la ciudad y le doten de los servicios que requerirá la población que lo habite.

Puntu honetan ere aipatu nahi dut azken urteotan Kirol azpiegituretan egin duen esfortzurik handiena Altzako Kiroldegian egin duela. 20 miloi euro baino gehiago inbertitu dira oro har azpiegitura garrantzitsu honetan. Zailtasun handiak gainditu ondoren, amianto kutsadura barne, azpiegitura berri honek zerbitzu bikaina eskaintzen du kirola egin nahi duen edonori.

Amiantoaren ezustekoak ere 3 miloitik gorako inbertsioa eskatu du, zonalde horretan.

En definitiva, trabajar en favor del equilibrio territorial exige volcar esfuerzos en aquellas zonas de la Ciudad que mas lo necesitan para alcanzar un nivel de calidad de vida lo mas alto y uniforme posible en toda la extensión del municipio. Ese ha sido el esfuerzo que se ha venido realizando durante los últimos años, un esfuerzo que no ha concluido y que deberá mantenerse durante los próximos ejercicios.

- Aukeren Hiria izatea (kalitatezko enplegua eta garapen ekonomikoa)

Gaur gaurkoz gure Hiriak urrats nabarmenak eman ditu aukeren Hiria izateko bide honetan. Aukera ezberdinak, aberastasuna sortzeko gaitasuna duten esparru ezberdinetan.

Askotan aipatu ohi dut Donostian BPGari begiratu ezkerreko industriak ez duela pisu nabarmenik. %5a baino zertxobait gehiago besterik ez du suposatzen. Hiriburu garen Lurraldeak aldiz, Gipuzkoak, bere

Barne Produktu Gordinaren %25a baino gehiago industrian oinarritzen du. Horren onuradun gu ere ba gara, donostiar askok industria horietan lan egiten dutelako, eta gainera, industria horiei balio erantsia eskaitzen dizkieten zerbitzu aurreratu asko eta asko Donostian dauzkagulako.

Hala eta guztiz ere, Donostiako BPGan industriak duen pisuak hurrengo urteetan gora egingo duela aurre ikusteko baditugu arrazoiak.

Y es que hoy, Donostia es el municipio de Gipuzkoa que tiene la mayor extensión de metros cuadrados de polígonos industriales en el mercado. Con Eskusaitzeta a la cabeza. El polígono de Eskusaitzeta se va completando con actividad industrial de última generación. Además de la nueva planta de OTIS, hace pocas semanas hemos conocido la participación de la iniciativa privada en MUBIL, con más de 30 millones de inversión. La calificación definitiva de Papin como industrial y la nueva salida del Polígono 27 por Astigarraga hacen que hoy Donostia sea una Ciudad con posibilidades de crecimiento notables en actividad industrial. Una actividad industrial de última generación, con empresas tecnológicas ligadas a la capacidad que Donostia ha generado en el campo del conocimiento, la innovación y la investigación.

Tenemos el parque tecnológico de Miramón a punto de colmatarse, lo cual nos hace plantearnos la necesidad de su ampliación, para poder albergar nuevas actividades que están conociendo un importante desarrollo durante estos últimos años en nuestra Ciudad.

No me cansaré de repetir que Donostia es una Ciudad de ciencia.

Gune bikainak daukagu biozientzietan, nanozientzietan, neurozientzietan edota informazio eta komunikazio zientzietan. Nature aldizkariak munduko 200 zientzia hiri nagusien artean kokatu gaitu. Eta hori guztia garatzen ari da gaur egun ere. Korta II eraikina edo Donostia International Physics Centeraren handitzea horren adibide dira, 2023an errealitate izango den Talent House 2arekin batera.

Euren lana ikerkuntza duten 5.000 pertsona baina gehiago ditugu Donostian. Ikaragarria da hori. Orain egun gutxi donostian izan genuen Bayer enpresako arduradunak zioen bezala, ez dakit benetan daukagunaz jabetzen garen.

Ostalaritzak eta merkataritzak gure Hirian duten pisua ere ezagunak ditugu. Kulturarekin batera, hauek izan dira pandemia garaian gehien sufritu duten sektoreak. Urte honetan gauzak bere onera itzuli dira, eta berriro ere, donostian aberastasuna sortzeko daukaten gaitasuna berreskuratu ahal izan dute.

Ostalaritza eta merkataritza sektoreek egoera eta garapen ezberdinak dituzte. Merkataritza sektorea erosketa ohitura aldaketa handien aurrean bizi da, eta horietara moldatzeko berrikuntza beharrezkoa dute.

Bestalde, Ez da berdin Hiriaren gune zentraletan edo periferietan bizi den egoera. Ez merkataritzari dagokionean ezta ostalaritzari dagokionean ere. Eta hori kontutan hartu beharreko gauza da. Baina uste dut guztiok aitortu beharra daukagula Donostian sektore hauen osasuna eta etorkizuna hein handi batean turismoari lotuta daudela. Donostiak duen erakartzeko gaitasunak sektore hauek asko laguntzen ditu. Eta hori oso garrantzitsua da gure hiriarentzat.

Gastronomiari aipamena egin nahi diot atal honetan. Donostia erreferente bat bait da gaur egun munduan. Eta izaten jarraitu behar du. Baina horrek lanean jarraitzea eskatzen du. Bide berriak jorratzea. BCC izan zen orain hamar urte horren adierazgarri, eta orain, Gastronomy Open Ecosystem izango da berrikuntzaren eta ikerketaren arloan gure Hiri punta puntan egotea ahalbidetuko duen proiektu berria. “Izarrak galtzen” ari garela dirudien honetan, belaunaldi erreleboa lortzea, talentua erakartzea eta berrikuntza sustatzea behar beharrezkoa zaigu.

Gastronomiari lotuta ere, Bretxa Merkatuaren erreforma aipatu nahiko nuke. Prozesu luze eta konplexu baten ondoren, laister errealitate izango da merkatu berria (baita anbulategia ere, noski!). Produktuan dago gastronomiaren oinarria, eta horren ikur izango da Bretxako merkatu berriua.

- Etxebizitza

Uztailaren 15ean etxebizitzari buruzko Osoko Bilkura monografikoa ospatu genuen Udaletxean. Legealdian ospatutako Pleno monografiko bakarra izan da hau, gaiak eragiten digun kezka izan da hori.

En aquel Pleno pudimos debatir. Cada uno desde su posición. Diría yo que no fueron posiciones tan divergentes. Es mas, las votaciones finales fueron muy coincidentes. Creo sinceramente que si algo quedó de manifiesto en aquel Pleno fue la dificultad a la hora de encontrar recetas a un problema que esta Ciudad tiene desde hace mucho tiempo y que cuando la coyuntura general empeora todavía se pone mas de manifiesto, tal y como está sucediendo ahora. Creo que es una cuestión que merece respuestas, pero no falsas ilusiones.

La Concejala Delegada de Urbanismo ofreció una serie de datos que creo son importantes tener en cuenta.

Donostia tiene un parque de 90.000 viviendas, de las cuales 77.000 corresponden a viviendas principales, es decir, aquellas que son residencia habitual. Aproximadamente el 13% se destina a alquiler. En los últimos años observamos que el número de unidades de convivencia ha aumentado a un ritmo mayor que el de la población, lo que se traduce en una disminución del tamaño medio familiar. Dicho de una forma muy simple: Aunque seamos los mismos, necesitamos mas viviendas, porque vivimos menos personas en cada una de ellas.

Eso impulsó la redacción del Plan de Vivienda en la legislatura anterior, y también la modificación de las condiciones para la conversión de locales en viviendas y la división de viviendas.

En estas dos legislaturas, se han puesto en el mercado 2172 viviendas nuevas, de las que 1630 son de nueva construcción, y 542 por división o cambio de uso.

Es decir, 25% de la nueva oferta es una oferta que se produce sobre la Ciudad ya construida. Y creo que ese es un camino por el que

debemos seguir transitando. Adaptando la tipología de las viviendas a la nueva realidad.

Y por supuesto, debemos seguir trabajando intensamente por generar nueva oferta. **Así se ha venido trabajando durante esta última legislatura, a lo largo de la cual se ha iniciado el desarrollo de varios ámbitos que en total suponen 2.087 nuevas viviendas de todo tipo en nuestra Ciudad. Las mas destacables por número de viviendas libre y protegidas que aportan son Añorga, el Infierno, Illarra y Ciudad Jardín de Loiola.**

Llegados a este punto quiero mencionar la gran importancia que tiene en este momento poder incorporar a la Ciudad los terrenos que ocupan los Cuarteles de Loiola. Supondría la posibilidad de desarrollar la construcción de 1.700 viviendas mas en un ámbito que además tiene la virtud de "coser" nuestra Ciudad.

Hoy puedo decir que estamos muy cerca de lograrlo. Todo nos hace indicar que antes de fin de año tendremos cerrado el acuerdo. Un acuerdo que es un gran hito para Donostia, al igual que lo fue el acuerdo que permitió el derribo de las murallas que posibilitó la ejecución del ensanche, o el acuerdo para la adquisición del Monte Urgull, el Museo de San Telmo o el que posibilitó el traslado de la cárcel de Ondarreta y posteriormente la cárcel de Martutene, que finalmente se hará realidad dentro de dos años.

Es mi intención compartir próximamente los contenidos de dicho acuerdo con todos los grupos de esta corporación, porque creo que ésta es una gran apuesta de Ciudad que va a marcar nuestro futuro.

Etxebitzaren gaiaren inguruko eztabaidetan behin baino gehiagotan azaldu da prezioen mugatzearen proposamena. Guztiok dakigu aukera hori ez dela Udalak erabaki dezakeen gauza. Estatu mailan mahaigaineratu da eztabaida hori, egungo legediaren berriskupenaren bidetik. Ikusiko dugu horrek zer ematen duen, eta zein aukera baliatzen duen.

Bai esan nahiko nukeela, horri dagokionez, 2021eko aurrekontuak onartzeko Elkarrekin Donostiarekin lortutako akordioa berresten dudala gaurkoan. Gobernu hau prest dago sortu daitezkeen aukera berriak erabiltzeko, beti ere tresnak eskaintzen baldin badira eta horiek baliogarriak baldin badira etxebizitzak bete beharreko funtzio soziala bete dezaten gure Hirian.

- Iraunkortasuna

Iraunkortasunak eskatzen du egungo beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldien beharrak konprometitu gabe, betiere ingurugiroaren zaintzari uko egin gabe, hazkunde ekonomikoari uko egin gabe eta gizarte garapenari uko egin gabe.

Oreka hori bilatzea ez da beti gauza erraza izaten, baina derrigorrez bilatzera behartuta gaude. Gainera, konbentzituta nago oreka hori bilatzen saiatzea aukera bikaina dela gure hiriarentzat.

Donostia konprometituta dago helburu horiek lortzeko lanean. Gure egin ditugu Nazio Batuek finkatutako Garapen Iraunkorrerako helburuekin eta 2030 agendarekin.

Honi dagokionean ere, esan beharra dago gure Hiriak egun dituen adierazleak ez direla abiapuntu txarra. Hori ez da nik esaten dudana gauza, Idencity kontsultorak egindako azterketetan ikusi dezakegu.

Hala ere horrek ez gaitu geldiarazi behar. Horregatik, bai Udal bezala modu zeharkakoan eta gainontzeko Euskal Erakundeekin batera elkarlanean aurrera pausoak ematen dihardugu.

Hiriaren 2030 Plan Estrategikoak beregain hartu du ere helburu hauek lortzea.

Ingurugiroaren atalean, eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan Donostiak aurrera pausuak ematen jarraitzen du Klima 2050 egitasmoaren eskutik, eta orain Next funtsen laguntzarekin ere.

Legealdi honetan gainera Donostiako Plan Orokor beria izango denaren idazketa lanei hasiera eman diogu. Azpimarratu nahi dut tresna honek duen balioa, etorkizuneko Hiria irudikatzen lagunduko bait gaitu, iraunkortasunaren ikuspegia erabat txertatuta izango duelarik.

En este apartado relativo a la Ciudad sostenible me gustaría detenerme por un momento en el Turismo. Y lo hago porque la apuesta que durante estos últimos años hemos venido realizando desde el propio Ayuntamiento ha sido en favor de un modelo de Turismo sostenible.

Todos somos conscientes del crecimiento que la actividad turística ha conocido durante estos últimos años. Una actividad que ha crecido de forma global (lo ha hecho en todo el mundo) y también en nuestra Ciudad. Y es una actividad generadora de riqueza, sin duda, aunque como todo, también puede generar algunos inconvenientes.

Desde que se formuló el Plan Director de Turismo en la legislatura anterior, ha existido una clara apuesta por centrarnos en cuidar el destino. Ya en aquel Plan de Turismo 2017-2021 se apostó por un turismo “mas sostenible, mas equilibrado, mas auténtico y de mayor calidad”. Y esa ha sido la senda que han seguido las revisiones y elaboración del próximo plan. Y también las decisiones que se han ido adoptando en el propio Ayuntamiento.

La regulación y control estricto de viviendas de uso turístico, la declaración de zona saturada en la Parte Vieja o la modificación del planeamiento que impide la conversión automática de edificios residenciales en hoteles. Esas son decisiones que se han ido adoptando a lo largo de estas dos legislaturas con el objetivo de lograr un equilibrio que nos permita desarrollar un modelo de turismo sostenible.

Este tema estuvo presente en el Pleno monográfico sobre vivienda celebrado en este Ayuntamiento, y la Concejala Delegada ofreció datos comparativos que nos demuestran que la situación de Donostia a día de hoy se mueve dentro de unos parámetros razonables.

¿Quiere esto decir que va a seguir siendo así? Evidentemente no si no hacemos nada.

Ya hemos anunciado que es nuestra intención seguir tomando medidas para que no se produzcan situaciones de desequilibrio que nadie quiere que se produzcan, con excesos de oferta que alteren la configuración de zonas y barrios de nuestra Ciudad. Y lo vamos a hacer, mediante una revisión del Planeamiento que establezca límites de modo que no se produzcan desequilibrios que insisto, nadie deseamos.

Aldi berean, turismoaren kudeaketa iraunkorraren aldeko apustu horrekin bat eginaz, zerbitzu hobeak eskaintzen lagunduko digun delako “tasa turistikoa” erabili ahal izateko lanean jarraituko dugu.

Turismoa historikoki gure Hiriak aberastasuna sortzeko erabili izan duen jarduera da, Donostiak apustu hori aspaldi egina dauka, eta egiten jarraitu behar du etorkizunean ere, modu iraunkorrean noski. Eta hala izango da.

- Hiri irisgarria

Ezagunak zaizkigu azken urte hauetan abian jarri diren hainbat azpiegura eraikitzeko lanak. Abiadura Handiko Trena, honek Donostian izango duen geltokia, mugaraino hirugarren erraia, eta horrek eskainiko dizkigun aukerak, aurrera dijoazten topoaren lanak (orain ere Altzatik Pasaiara doan zatia martxan dago), Erriberetako interkanbiadorea... Guzti horiek aurrera doaz, eta nahiz eta orain eragozpenak sortu, etorkizunean izugarritzko aldaketa ekarriko digute gure hirian. Hoberako aldaketa noski.

Baina puntu honetan, eta denbora mugatua denez, mugikortasunaren inguruan datozen aldaketei buruz jardutea gustatuko litzaidake.

Europako Hiri guztiak aldaketa horretan murgilduta gaude, Donostia ere bai. Orain arte ezagutu ditugun Hiriak aldatzen ari dira. Ez da egun batetik besterako prozesua izango, baina badator. Eta aldaketak ez dira errazak izaten gertatzen direnean, baina egin ondoren nekez

itzuli nahi izaten dugu atzera. Aldaketa prozesuan gaude, eta ba dakit hori ez dela gauza erraza izaten.

Yo recuerdo cuando la Parte Vieja no era peatonal y los coches aparcaban en la plaza de la Constitución, o cuando por la calle Getaria y la Calle Loiola circulaban coches. O cuando no había OTA, ni Bidegorri por la Concha. Ninguna de las decisiones que hicieron esto posible fueron sencillas. ¿Pero alguien querría volver atrás? Sinceramente creo que no.

Soy consciente de que este verano ha sido duro. Lo he visto, lo he vivido y lo he escuchado. Soy consciente de que algunos de los cambios que se han hecho no han sido bien entendidos. Y cuando algo no se entiende es porque no lo hemos sabido explicar. Tengo un buen amigo que me enseñó que en una conversación cuando uno habla nunca debe preguntar ¿Me has entendido?, debe preguntar ¿Me he explicado?

Pues bien, creo que debemos hacer un esfuerzo por explicarnos y por escuchar. Y es lo que vamos a hacer durante los próximos meses, explicar, escuchar y recoger aportaciones. Creo que todo será bueno para mejorar, es lo que a todos nos gustaría.

Pero lo he dicho antes. Creo que debemos asumir que las cosas han de cambiar. Y están cambiando. Y no porque haya una Ley que nos obligue a poner en marcha una Zona de Bajas Emisiones el año que viene, sino porque el cambio es para mejor.

Creo que tener una Plaza del Buen Pastor totalmente peatonalizada con la Calle Loiola es mas que deseable. Creo que hoy, el Paseo de la Concha con una acera mas amplia, con un bidegorri mas seguro y con tamarindos es mejor que el que teníamos antes. Creo que hoy, la Travesía de Loiola es un lugar recuperado para la ciudadanía, y creo que el Paseo de Otxoki, cuando finalicen las obras del nuevo acceso de Marrutxipi será mucho mejor que lo que es ahora. Creo que avanzar en la peatonalización de la Plaza de Gipuzkoa merece la pena. Yo recuerdo cuando los coches pasaban por delante de la Diputación. No hace tanto tiempo de aquello. Hoy no lo podríamos imaginar.

Las cosas cuestan, es verdad. E insisto, creo que tenemos que hacer un especial esfuerzo por explicarlas y por escuchar y hacer partícipes a todos los ciudadanos y agentes de ese cambio, recogiendo las aportaciones que se quieran hacer. Lo vamos a hacer. Va a ser nuestro empeño durante los próximos meses.

Gauzak aldatzen ari dira. Garraio publikoak eta bizikletak berealdiko indarra hartu dute. Ikustea besterik ez dago Dbizik izan duen arrakasta. Aurreikuspen guztiak gainditu ditu bere erabilpenak, eta gure asmoa da hirian zehar eta zergaitik ez, baita hiritik kanpora ere bere erabilpena zabaltzea.

Gaurko gazteek ez diote autoari gure belaunaldiak eman dion garrantzia ematen. Transizio garaian gaude, etorkizun hobea ekarriko digun transizio garaian.

- Euskara, kultura eta sorkuntza aniztasunean sustatzen dituen Hiria

Tiempos de incertidumbre. Ziurgabetasun garaiak. Eta garai hauetarako prest gaude. Donostian kulturen dugun sarea bidelagun da horretan.

Liburutegi sarea, kultur etxeak, oinarrizko zerbitzuak ditugu kultura etxe guztietara eramateko eta denon zerbitzura jartzeko.

Kulturak Komunitatea egiten laguntzen du. Eta horretan gure oinarrizko kultura zerbitzuak sendo dauzkagu.

Kultura beti izan da donostiarron nortasun marka garrantzitsua. Horren lekuko dira aurten Zinemaldiak bete dituen 70 urteak edo Jazzaldiak eta Hamabostaldiak jendearen harrera bikaina jasoaz daramatzaten urteak.

San Telmo Museoak berak 120 urte bete berri ditu eta sasoi betean dagoela erakutsi du artearen arloan ekarpen handi bat eginez: Oteiza-Chillida familien besarkada . Eta orain Chillidaren urtea prestatzen hasita gaude denok. 2024ean izango da . Orduan beteko dira artista

handi eta unibertsala jaio zela 100 urte. Euskal artean urte potentea izango da eta Donostia erdigunean izango da bete-betean.

Izan ere artearen sistema sendotzen ari da eta Donostiak bere apustuari jarraituko dio; Hondaleak urtebete egin du uhartean bertako eta bisitari askoren gordeleku eta pausaleku bihurtuta Cristina Iglesiasen arteari esker; berandu baino lehen beste zor ttiki bat kitatuko dugu oso gurea eta maitea dugun Esther Ferrerrekin. Hori Tabakalera inguruan izango da.

Baina etorkizuneko artistei bide ematen ere ari gara: oraintxe bertan Tabakalera hamahiru euskal artista gazte eta hasi berrien lanak dauzkagu, Tabakalera sortzaileen fabrika hasi da fruituak ematen, hiriko zenbait orma apaintzen ari gara muralgileekin.

Aurten Martutenen auzotarrekin elkar lanean egin duguna.

Y además de seguir impulsando el sistema del arte tenemos especial cuidado con nuestro patrimonio histórico. Acabamos de finalizar el proceso de mantenimiento de dos fachadas emblemáticas de la ciudad como son la del teatro Victoria Eugenia y la fachada del Museo San Telmo con escrupuloso cuidado realizando una intervención con profesionales de la restauración.

La cultura es un signo de identidad y de referencia de nuestra ciudad. Y en nuestra ciudad la cultura se escribe con K de Donostia Kultura porque también el euskara es otra gran seña de identidad de las y los donostiarras.

Euskararen Hiria den honetan euskarazko baldintzak bermatzen jarraitzea dagokiu, eta zerbitzu bezala, errefente izaten jarraitzea.

- Bizikidetzeta eta balio demokratikoak.

Aurreko politika orokorreko Plenoetan gai hau jorratzerakoan bereziki bi atal azpimarratu izan ditut. Gure iragan hurbila eta memoria historikoa. Bi atal hauetan burututako ekimenak guztion ezagunak dira. Biolentzia eta Terrorismoaren biktimen inguruan Hirian zehar jartzen joan garen plakek beste pauso bat izango dute datorren

larunbatean Urriaren 29n. Eta aurrera jarraituko dugu erreparazio lan horretan.

Memoria Historikoaren atalean aipagarri dira Polloeko "martirien mausoleoan" egindako ikerketak eta ekimenak edo oso epe laburrean Udalak frankismo garaian erahilak izan ziren bere langileak zirela eta aurkeztuko duen kereila.

Baina gaur, Bizikidetzaz eta balio demokratikoetaz hitz egiterakoan beste gogoeta bat datorkit burura. Hain zuzen ere, Europan eta munduan gertatzen ari denaren inguruko gogoeta. Donostia ez baitago arrisku horretatik kanpo.

Etxenike nos dice que "Es posible que hayamos dado por sentado algunos logros, incluso la democracia, y no hayamos sido conscientes de que hasta mantener lo que hemos logrado exige vigilancia, actitudes democráticas, comportamientos que hay que trabajar". No puedo estar mas de acuerdo.

Svetlana Boym, en su libro "El futuro de la nostalgia" ya decía que con las nuevas tecnologías la nostalgia se ha exacerbado y avanza como una pandemia global, como mecanismo de defensa ante el ritmo vertiginoso de los cambios y la terapia de shock económica. Nostálgicos que no reconocen que el pasado pudo haber tenido sus inconvenientes. No es casual que la nostalgia a menudo vaya de la mano de las teorías conspiranoicas y las mentiras medianas. Según esa visión, la identidad esencial que antaño nos caracterizaba nos ha sido arrebatada y reemplazada por una versión barata y artificial. Esta es la base para que se desarrollen los populismos.

Y ese es un peligro real que nos acecha. Todavía recuerdo cuando empezamos a oír informaciones sobre el Coronavirus que nos llegaban desde China, y luego desde Italia... Y creíamos que eso quedaba lejos. Y al final llegó. Pues esto es igual. Sinceramente creo que debemos hacer un gran esfuerzo por mantener los valores de la democracia y de la convivencia entre nosotros.

Durante los últimos años hemos trabajado intensamente por promover el reconocimiento y respeto de los Derechos Humanos. Lo vamos a tener que seguir haciendo con mayor intensidad en el futuro,

promoviendo los valores democráticos, el respeto y la convivencia. Hoy esto es mas necesario que nunca.

4.- ETORKIZUNEN ERONKEI AURRE EGITEKO TRESNAK

- Donostiako Udala

Orain gutxi oso bilera interesgarria izan da Udaletxe honetan, COVIDaren krisian bizitakoa eta ikasitakoa aztertzeko elkatu dira etxe honetako zuzendariak eta krisian laguntza izugarria eskaini duten Donostiako elkarte eta enpresa batzuetako arduradunak. Bileraren helburua: Hurrengo krisietarako entrenatuta eta ikasita egotea, forman egotea.

Bilera horretan Quim Brugué politika publikoetan aditua den irakasle katalanak hartu du parte. Berak behin eta berriro azpimarratu du arazoei aurre egiteko antolatzen ikasi beharra daukagula. Garai bateko eredu ierarkikoak erakundeak ito ditu eta zer esanik ez herritarren zerbitzura dauden erakundeak. Ito ezezik burokraziaz bete eta herritarrengandik urrundu.

Sarean lan egiten ikasi beharra daukagu. Sarean, bai Udalak dituen sail artean eta baita ere Donostian dauzkagun elkarte, erakunde, enpresa eta udaleko sailen artean. Zer hobetu behar dugun pentsatu, zein arazori aurre egin behar diogun adostu eta denon artean lidergo partekatuan egin lan.

Azken urte hauek honetan guztian eskola handia izan dira. Kudeaketa aldaketa izugarria egin dugu Donostiako Udalean. Helburuak finkatu, neurtzeko indikadoreak ezarri, ebaluazioak egin... Gai zehatzetarako sailen arteko talde mistoak sortu eta abar. Oraindik asko daukagu egiteko. Herritarren zerbitzura gaude, herriko beste eragileekin elkar lanean ditugun eronkei erantzunak emateko.

Estamos por tanto, transitando de trabajar en estructuras piramidales a trabajar en red. Algo que no es sencillo, pero que resulta mas necesario que nunca.

Me gusta especialmente el modelo de participación colaborativa que defiende Manuela Carmena, una participación que va mas allá de la reivindicación, una participación que hace que todos nos impliquemos, cada uno desde el lugar en el que se halla, en la construcción de Donostia.

- Next Funtzen aukera

Bizi izandako krikisitik irtetzeko asmoz eta eraldaketa gauzatzeko asmoz abian jarri ziren Next funtsak. Hasiera hasieratik Udala buru belarri hasi zen lanean funts hauek eskaintzen zituzten aukerak ahalik eta gehien baliatu ahal izateko. Ez da batere lan erraza izan. Sarean lan egitera behartu gaitu honek ere, eta lagundu du beraz gure Udalaren funtzionatzeko era aldatzen.

Gaur arte dirulaguntza jasotzea lortu duten proiektuek 36.634.112 eurotako aurrekontua suposatzen dute. Kopuru horretatik ia 23.000.000 euro finantziatuko dituzte Next funtsek. Arlo ezberdinei dagozkien proiektuak dira hauek: Turismoa, merkataritza, digitalizazioa, mugikortasuna, etxez etxeko laguntza, mantenua edo kolektibo zaugarriari zuzendutako programak.

Horretaz gain, une honetan 32.096.541 euroko aurrekontua suposatzen duten proiektuak aurkeztu dira, eta horien erantzunaren zain gaude. Proiektu hauek 21.612.965 eurotako dirulaguntza jaso dezakete guztira. Proiektu hauek, eraikinen birgaitzea, merkataritza, merkatuak, turismoa eta mugikortasunaren alorrekoak dira.

Laguntza hauek lortzeak izugarrizko bultzada suposatzen dute hainbat esparrutan. Eraikinen birgaitzean, efitzientzia energetikoaren hobekuntzan, garraio publikoaren elektrifikazioan edo ur azpiegituren eta komunikazio azpiegituren hobekuntzan.

Ezbairik gabe esan dezakegu Donostiako Udalak ondo baino hobeto egin dituela etxekolanak Next Funtzak suposatzen duten aukera hori ahalik eta gehien baliatzeko.

Orain, aurrean dugun erronka handiena da funts horiek modu egokian kudeatzea. Hurrengo bi ekitaldietan Udalak duen lanik nagusiena hori izango da, inbertsio horiek modu egokian aurrera eramatea eta beraz, hiria eraldatzeko lanari ekitea.

- Udala zenbaki nagusietan

Aurki aurrekontu proiektua aurkeztuko dugu. Kontutan hartu beharreko zenbakiak:

Diru sarrera arruntak orora: 333.000.000 inguru (aurreko urtekoarekin alderatuta 10 edo 11 miloi gehiago. Horietatik diru sarrera gehienak Foru Funtsak eskaintzen ditu. Gure zergak ez igotzea erabaki dugulako. Esfortzu handia da hori.

“Eso supone un gran esfuerzo para las arcas municipales, pero hemos decidido hacerlo porque muchas personas están viviendo ya verdaderas dificultades”

ITXIERA

Amaitzera noa. Hainbat gai geratu dira aipatu nahi izango nituzkeenak, baina denboraren mugak ezinezkoa egiten du 50 minututan guztiak jorratu ahal izatea. Plenoetan eta Batzordeetan izan dugu aukera eta izango dugu aukera etorkizunean guzti horietaz luze eta zabal aritzeko.

Baina ideia batekin amaitzea gustatuko litzaidake gaurkoan: Elkartzen gaituen Hiriarena. Horretan sinisten dudalako. Aurrera egin nahi duen Hiri batek bere buruari egin beharreko galdera honakoa da: Zer egin nahi dugu elkarren artean?

No hay una sola Donostia, seguramente hay tantas Donostias como sensibilidades, sensibilidades que son además cada vez mas diversas. Lo que debemos hacer es tratar de unir, de trabajar, por encima de las diferencias, con espíritu constructivo por una Donostia integrada y cohesionada, basada en 5 pilares fundamentales:

- Personas que conocen sus derechos y responsabilidades.
- Personas que confían unas en otras.
- Personas que confían en las Instituciones que las representan.
- Personas de distintos orígenes que tienen oportunidades de vida similares.
- Personas que participan en las decisiones de la Ciudad.

Donostiaren aurrerabidea beti egon da hiritarren ekimenari lotuta. Ideologia eta sentimentu ezberdinetatik abiatuta Hiria bultzatzeko bat egiteko gaitasuna izan duten pertsoneri lotuta alegia.

Hurrengo urteak funtsekoak izango dira gure hiriarentzat, etorkizuna marraztuko duten erabakiak hartu beharko ditugulako. Gaurko adierazpen honetan aipatu ditut horietako asko zeintzuk izango diren. Eta horretan guztiok daukagu zer esana eta zer egina, guztion lana delako Donostia hobea eraikitzea.

Eskerrikasko